

Jardunaldi Teknikoa

“Laneko minbizia argitara”



Landaben industrialdea, E/F Kalea - 31012 Iruña
Tel. 848 42 37 17 - Fax 848 42 37 30
Web: www.insl.navarra.es



Iruña, 2018ko apirilaren 18a

AURKEZPENA-HELBURUAK

Osasunaren eta Laneko Segurtasunaren gaineko EBren 2014-2020ko esparru estrategikoak azpimarratzen du zeinen garrantzitsua den langileak babestea kartzinogenoekiko, mutagenoekiko eta ugalketarako toxikoak diren substantziekiko esposizioaren kontra. Horrenbestez, Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak ekimen hau garatu du: "2018-2019 kanpaina. Lantoki osasungarriak: substantzia arriskutsuen kudeaketa egokia".

Europako ekimen horrez gain, kontuan hartu behar da Laneko Segurtasun, Osasun eta Ongizateko Institutu Nazionalak eguneratu egin duela 665/1997 Errege Dekretuak, Lanean dauden bitartean langileak agente kantzerigenoen esposizioarekin lotutako arriskuen aurka babesteari buruzkoak, onetsi zuen gida teknikoak, eta, hortaz, beharrezkoa da berrazter dezagun eragile kimiko horiei lotutako arriskuaren kudeaketa.

Nabarmentzeko modukoak dira laneko gaixotasunen deklarazioaren arloan Nafarroako dituen zifrak, Estatuko zifra osoekin alderatuz gero. Nolanahi ere, laneko minbiziak dira, baita gure Erkidegoan ere, aitortzarik txikienetakoa duten patologietako bat, jatorri profesionaleko eritasunen artean.

Administrazio publikoek ez dute behar beste informaziorik ematen minbizi eragiten duten gaietako esposizioari buruz. Ezinbestekoa da arlo hori hobeki ezagutzea. Osasun Sistema Publikoak, gainera, laneko minbiziaren zaintza postokupazioanaleko programak ezartzen ahal ditu eta horrek oso interesgarri egiten du kantzerigenoen eraginpeko pertsonak erregistratzeko sistema bat izateko aukera.

Horiek horrela, eta bat eginez Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko 2017-2019 Ekintza Planeko jarduketekin, Jardunaldi hau antolatu dugu, helburua izanik parte-hartzaileek ikas dezaten zein diren tresnarik funtsezkoenak eragile kantzerigeno edo mutagenoekiko esposizioa kontrolatzeko:

- Ordeztea, prebentzio-ekintza ororen oinarrizko printzipioa;
- Ongi ulertzea zein diren gehieneko balioak eragile horien esposizioaren ebaluazio kuantitatiborako
- Ezagutzea Asturiasko esperientzia lanean kartzinogenoen eraginpean dauden langileen erregistroa lantzen.
- Ezagutzea zein diren zaintza postokupazioanaleko programaren emaitzak Nafarroan amiantoarekiko esposizioa izan duten langileen kasuan.

Hitzaldiak lagungarriak izaten ahal zaizkigu hobeki kudeatzeko arlo honetan itxuraz dagoen kontraesana: batetik, gehieneko balioak ezarri beharra eta, bestetik, defendatu beharra esposiziorik ez izatea dela aukera seguru bakarra.

NORENTZAT:

Prebentzio zerbitzuetako teknikariak eta osasun-langileak, NOZ-Osasunbideko osasun-langileak, mutualitateak, sindikatu etako eta enpresaburuaren erakunde etako ordezkariak

ORDUTEGIA: 09:00etatik 14:00etara.

TOKIA: NOPLOIko ekitaldi aretoa. Landabengo industrialdea.

Oharra: Jardunaldia grabatuko da eta webgunean jarriko da.

EGITARAUA

8:30

Harrera eta dokumentazioa ematea.

9:00

Jardunaldiaren irekiera

M^a José Pérez Jarauta

NOPLOIko zuzendari kudeatzailea

9:30

Ordeztearen garrantzia lanean eragile kantzerigenoak edo mutagenoak daudenean

Ruth Jiménez Saavedra

Teknologia Berrien Zentro Nazionala - Madril. INSSBT

10:15

Gogoeta berezia eragile kantzerigeno edo mutagenoetarako gehieneko balioei buruz

Juan Porcel Muñoz

Makineria Egiatzatzeko Zentro Nazionala - Bizkaia. INSSBT

11:00

Eztabaida eta galderak

11:30

Atsedenaldia - kafea

12:00

Kantzerigenoen eraginpeko pertsonen erregistroa

Esperanza Alonso Jiménez

Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusia - Asturias.

12:45

Azterketa postokupazionalen emaitzak, Nafarroan amiantoarekiko esposizioa izan duten langileei dagozkienak

Belén Marín Martínez

O-NOZeko Neumologia Zerbitzua

13:30

Eztabaida eta galderak

14:00

Itxiera.

Iñaki Moreno Sueskun

Lan Osasunaren Zerbitzuko burua